



**Arartekoaren Ebazpena, 2009ko otsailaren 26koa. Horren bidez Arabako Foru Aldundiari iradokitzen zaio adingabeko baten babesik gabeko egoeraren deklarazioa berrikustea eta premiaz ebatzi ditzan adingabekoaren gurasoek eta amaren aldeko aiton-amonek aurkeztu dituzten eskaerak.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekora jo du Arabako Foru Aldundiak babesik gabeko egoeran deklaratu duelako bere seme (...) eta haren tutoretza hartzeko ebazpena eman duelako. Semea (...)ean jaio zen, hortaz, (...)an Foru Aldundiak aipatutako ebazpena eman zuenean, (...) baino ez zituen.

Hasieran, (...) eta (...) gurasoek haurtxoa aldundiari emateari uko egin zioten, eta horregatik foru aldundiak auzibideetara eraman zituen, ez baitzuten ebazpen administratiboa bete. (...)an, amak foru aldundiko haurrentzako zerbitzuari eman zion semea epaitegian. Egun, haurra egoitzetako harreran dago.

Bestalde, amaren aldeko aiton-amonek familia-harrera eskaera aurkeztu zuten (...)an, baina ez zuten erantzunik jaso 20 egun igaro ondoren ere. Haien ustez, oso larria da hori haurra oso txikia delako. Harrez geroztik, aldundiari behin eta berriz adierazi zaio eskaera ebaztearen garrantzia.

Era berean, ez dute jaso gurasoentzat bakarrik den astean ordubeteko bisita erregimena aldatzeko eskaerarentzako erantzunik, ezta amaren aldeko aiton-amonek bisita erregimen zabala edukitzeko eskaerari ere.

2. Erakunde honen lanean ohikoa den legez, Arabako Foru Aldundiari informazioa eskatu diogu. Kontatu dizkigutenak hala, eta halako kasuetan denbora igarotzeak duen garrantziagatik, premiazko informazioa eskatu dugu. Eskaera honen edukia familiarekin egindako esku-hartzea izan da, baita haurra babesik gabe aitortzea ebatzi duen ebazpenean zerrendatutako egintzak justifikatzen dituzten txosten sozialak eta psikologikoak ere. Horrekin batera haurrari



jaramonik egin ez izana justifikatzen duten txosten medikoak, aiton-amonak familia hartzaile gisa baloratzeko luzapena azaltzen duten arrazoiak eta egintzei buruzko bestelako edozein informazio interesgarri.

3. Foru aldundiak erantzun digu haurra babesik gabeko egoeran deklaratzeko arrazoiak azalduz. Era berean, Gasteizko Udaleko Haurren eta Familien Zerbitzuko tutoretza proposamenaren txostenaren kopia bidali dute, tutoretzako ebazpen administratiboa kopia eta ebazpen administratiboa ez betetzeagatik martxan jarritako prozedura judizialaren kopia. Diputazioak honako arrazoiak eman ditu erabakiaren alde: "Adingabekoen Kontseiluaren esku-hartzea azkar egin da honako arrazoiengatik: haurrak bizi zuen hur-hurreko arriskuaren gaineko informazioa, haurra gazte-gaztea izatea, bereziki kaltebera izatea, amak haurren babesik gabeko egoera ezin zuelako zuzendu, aitak duen mendetasun ezaguna eta horrek haurrari buruzko erabaki egokiak hartzea oztokatzea eta egoitza baldintzak. Legeak baimentzen dituen baliabideak erabili dira babes behar gehien duenaren alde eta interesetan. Horrela aurreikuspen txarra duten kalteak kronikoa bihurtzea saihestu da.
4. Aiton-amonak harrera familia gisa baloratzeari dagokionez, jakinarazi digu "Amaren aldeko aiton-amonak egindako harrera eskaerari dagokionez: *jasota dago (...)an (...) andreak eta (...) jaunak beren biloba (...)en harrera eskatu zutela. Egun, egokiak diren aztertzen ari dira, GOFeren Adingabekoen eta Familiaren Atalaren administrazioko kontratazio bidez elkarlanean aritzen den kabinete berezitu batean. Balorazioa egiteko epearen barruan daude.*"

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, nabarmendu beharra dago Arabako Foru Aldundiak azkartasunez erantzun duela erakunde honetatik bidali zaion informazio eskaerari, eta hori aldeko balorazioa da. Administrazioaren laguntzak legeak ezarri dion eginkizuna betetzea ahalbidetzen dio Arartekoari.
2. Kexaren zioa haurtxo bat babesik gabeko egoeran deklaratzeko eta ondorioz haren amarengandik banatzea da. Haurtxoak (...) hilabete baino ez zeuzkan,



hortaz, amarengandik urruntzeak eragin handia dauka. Berebiziko garrantzia dauka bizitzako lehenengo hilabeteetan amaren eta haurraren arteko lotura, bereaz, banaketa gomendagarria izateko funts handiko arrazoiak izan behar dira tarteko. Erabaki hau hartzeko ezarritako prozedura errespetatu behar zen, baita ezarritako bermeak ere, eta hori aztertuko dugu orain.

3. Foru aldundiak zegokion araudian ezarritako premiazko prozedura jarraitu du, haurtzaroa eta nerabezaroa babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 59. artikulua. Prozedura horren bidez ahalmena ematen zaio aldundiari berehalako esku-hartzea izan dezan, baldin eta "haurra edo nerabea babesik gabeko egora larrian badago, osotasun fisiko zein psikikoari dagokionez".

2. atalak dio: *"Tramite horiek amaitu ondoren, eskumena duen organoak erabaki egingo du, eta, hala badagokio, administrazio-ebazpen bat emango du, eta hartan, babesgabezia-egoera badagoela adierazi, legeak aginduta tutoretza ezarri eta dagozkion babes-neurriak hartuko ditu. Ebazpen hori ministerio fiskalari jakinaraziko zaio, eta haurraren edo nerabearen guraso, tutore eta zaintzaileei ere bai, bi egun naturaleko epearen barruan. Ahal den guztietan, jakinarazpen hori, idatziz ez ezik, aurrez aurre ere jakinarazi beharko da".* c) letran haurrari entzutea proposatzen du legeak, eta halakorik ezin bada, haren iritzia berri izan ahal izango dugu, lanbideagatik eta konfiantza bereziko harremanagatik halakorik transmiti dezaketenen ahotik.

Artikulu honek berak ezartzen du, beranduago, ohiko prozeduran ezarritako izapidetze guztiak egin behar direla eta administrazioko ebazpen bat eman behar dela babesik gabeko egoera berresteko edo hasieran emandako tutoretza azkendu eta behin-behineko neurriak eteteko. Ohiko prozeduran, foru aldundiak txostenak eskatu behar dizkio egoera soziofamiliarra ezagutzen eta baloratzeko datuak eman ditzaketen pertsona edo erakunde orori, besteak beste, zerbitzu sozialak edo pediatra, aitari eta amari entzun, haurraren edo nerabearen eta haren familiaren edo hura zaintzen dutenen egoerari buruz informazioa eman dezakeen bestelako pertsoneri entzun.

4. Legeak ezarritakoaren arabera, oinarrizko zerbitzu sozialen eta arrisku eta babesik gabeko egoeretan berezitutako lurralde zerbitzuen berrespena tresna teknikoak aplikatuta egingo da. Jardun administratiboak baloratu eta koordinatzeko protokoloa ezartzen ditu ere (49. art. eta lehenengo azken



xedapena). Hori horrela, espedientearen analisisan, zein jasotako informazioan ez da inon ageri tresna teknikorik erabili denik 12 hilabetetik beherako haurren babesik gabeko egoera aztertzeke.

Helarazi digun informazioaren arabera, foru aldundiak babesik gabeko egoera aitortzea erabaki zuen, soilik (...)an Gasteizko Udalaren Haurren eta Familiaren Zerbitzuak emandako txosten batean eta zerbitzu horren (...)ko jardunean oinarrituta.

Honakoak dira txostenean hauteman ditugun mugak:

- Ez dago adingabekoaren desatentzia frogatuko duen txosten medikurik, psikologikorik edo sozialik. Era berean, ez da inon jaso gizarte langilerik haurra edo bera bizi den tokia ikustera joan izana, gurasoekin hitz egin izana edo familiarekin hitz egin izana haurra jaio zen egunetik.

- Helarazitako informazioaren arabera, udal gizarte zerbitzuak birritan elkarrizketatu dute ama, behin 2002an eta beste behin (...)ean, hots, semea jaio aurretik.

- (...) jauna pediatraren txostena dago, (...)koa. Bertan adierazi du **“ama haur osasun programako kontsulta guztietara etorri da baita familiak berak eskatuta, prozesu larriagoren batean. Horietan guztietan ondo zaindutako haurra aurkitu dugu, garbitasun egokiarekin, eta guraso-seme harremanak ez zuen zalantza izpirik uzten. Kontsultan emandako elikadura, garbitasun eta prebenetio jarraibideak ondo betetzen zituzten eta ez dugu inoiz ere pentsatu (...) tratu desegokia jasotzen zuenik, eta hare gutxiago tratu txarrak jasotzen zituenik edo gurasoek jarrera arduragabea zutenik”**. Sendagileak askotan hartu du haurra jaio zenez geroztik, eta ez du inoiz uste izan desatentziorik zegoenik. Txosten hori erakunde honek egindako informazio eskaeran erantsi zen, eta garrantzitsua da nabarmentzea foru aldundiak bidalitako informazioan ez dela medikuaren bestelako txostenik jaso, haurraren pediatra (...) jaunak esandakoaren aurkakoa esaten duenik.

- Haurtxo honen babesik gabeko egoera aitortzeko oinarri izan den txosten sozialak Gasteizko Udaleko Haurren eta Familien Zerbitzuari aitaren senitarteko batek emandako informazioa du oinarri, hain zuzen ere (...)an eta (...)an egindako elkarrizketetakoak. Hau da, ebazpenean aurrekarien atalean jaso den informazioa gizarte zerbitzuetakoa ez den pertsona batek





emandakoa da. Txosten sozialaren edukia pertsona horren adierazpenek osatzen dute, nagusiki. Aldundiak "behatzaile" izendatu du.

- Ez da inon jaso udaleko Haurren eta Familien Zerbitzuak edo Arabako Foru Aldundiaren Adingabekoen Kontseiluak esku-hartzerik izan duenik, "behatzaile"ak emandako informazioa berreste aldera. Hortaz, ondorioztatu beharra dugu guraso batzuen gaineko erreferentziak, haien jarrerak edo izateko eraren gainean egindako erreferentziak egiazat jo direla. Erreferentzia horiek ezagutza teknikorik ez duen eta zerbitzu publikoetako ez den pertsona batek egin ditu.

- Erabakia hartu aurretik ez zaio ez gurasoei ezta aipatutako pertsonaz bestelako senitartekori entzun.

Bestalde, Gasteizko Udaleko Haurren eta Familien Zerbitzuko txostenean adierazi da Haurren Udal Zerbitzua Udaltzaingoarekin eta Ertzaintzarekin harremanetan jarri dela, eta egiaztatu ahal izan dute haurraren aita (...)k polizia aurrekaririk ez daukala. Era berean, (...)ko O.Z.arekin eta (...) Ospitalearekin harremanetan jarri dira eta ez dute desatentzio zantzurik edo arazorik topatu.

5. Erakunde honen aburuz, txostenaren muga horiek nahikoa garrantzitsu dira Arabako Foru Aldundiari eskatzeko (...) adingabea babesik gabeko egoeran aitortzeko hartu duen erabakia berrikusteko prozedura has dezala. Arestian esan bezala, haurrak eta nerabeak babesteko otsailaren 18ko 3/2205 Legeko 59. artikuluan ezartzen da, babesik gabeko egoera aitortzen duen ebazpena eman ondoren, eta ohiko prozeduran jasotako izapidetzeak burutu ondoren, ebazpen berria eman behar dela, babesik gabeko egoera berresteko edo hasieran eratutako tutoretza azkentzeko. Berrikuspenean, gure ustez, Haurren eta Familiaren Zerbitzuaren txostenean hautemandako mugak aintzat hartu behar dira. Gainera, urte batetik beherako haurren babesik gabeko egoera baloratzeko egokia den tresna teknikoa erabiltzea egoki litzateke eta bizitzako lehenengo hilabeteetan haurrak amarekin duen lotura kontuan hartu.

Era berean, hilabete gutxiko haurtxo baten kasua izaki, iradokitzen dugu, premia, aiton-amonek egindako harrera eskaera ebaztea, baita aiton-amonen zein gurasoen bisita erregimenaren berrikuspenarena ere.





6. Azkenik, gogorarazi beharra dago Arartekoaren eginkizuna ez dela babesik gabeko egoera dagoenentz baloratzea, hori foru aldundiaren ardura da, eta auzitegiarena berau berrikustea. Arartekoaren esku-hartzea jarraitutako prozedurarekin lotuta dago, baita babesik gabeko egoera bat baloratzean egon behar diren bermeeekin ere. Pertsonen eskubideak defendatzea Arartekoaren eginkizuna da ere, bereziki kalteak jasateko arriskua dagoenean. Agindu honek garrantzi berezia dauka hizpide dugun kasua bezalakoetan eta justifikatzen du Arartekoak espediente hau modu ezohikoan eta premiaz izapidetu izana.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako iradokizun hau egiten da:

**1/2009 IRADOKIZUNA, otsailaren 26koa, Arabako Foru Aldundiari egina:**

- (...) adingabearen babesik gabeko egoeraren aitortzearen berrikuspen prozedura hasi, ohiko prozeduran jasotako jarraibideak aintzat hartuz, baita Gasteizko Udaleko Haurren eta Familien Zerbitzuko txostenean hautemandako mugak ere.
- Urte batetik beherako haurren babesik gabeko egoera baloratzeko egokia den tresna teknikoa erabiltzea egoki litzatekeela aintzat hartu eta bizitzako lehenengo hilabeteetan haurrak amarekin duen lotura kontuan hartu.
- Adingabearen familiak aurkeztutako eskaerak premiaz ebatzi, hau da, amaren aldeko aiton-amonen harrera eskaera eta gurasoen zein amaren aldeko aiton-amonen bisita erregimenaren berrikuspena.

